

## Elgoibar Ikastolako bi talde, Aita Larramendi Ikastolako beste bi talde eta La Salle Berrozpeko talde bat nabarmendu dira Kosmodiseako "Ikono" fasean

"Nagusiak alaitu", "Mendiak eta basoak zaindu ditzagun" eta "Pedalekin energia sortzeko bizikletak" proposamenen inguruko lanak egin zituzten.

**Kosmodisea**, programaren zazpigarren edizioak bere hiru etapak bete ditu dagoeneko: "Ideia-jasa", entrenamendu-fasea eta Ikono planeta. Programa hori Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntza, Landa Garapen eta Turismo Departamentuak sustatzen du Gipuzkoako ikasleen kultura ekintzailearen balioak bultzatzeko asmoz.

Jasotako proposamen guztien artean, parte-hartzaileen puntuazioaren arabera, ikasleek honako ideia hauen inguruan jardun behar zuten **Kosmodisea** 2012-2013 edizio honetan:

- "Mendiak eta basoak zaindu ditzagun", Donostiako **Ikasbide Ikastola** iradokia berrikuntza zientifikoaren eta ingurumenaren arloan.
- "Nagusiak alaitu", Zarauzko **Orokieta Herri Eskola** proposatua berrikuntza hiritarra izeneko esparruan.
- "Tribu urbanoak", Andoaingo **Aita Larramendi Ikastola** sortutako ideia, berrikuntza kultural eta artistikoaren esparruan.
- "Pedalekin energia sortzeko bizikletak" proposamena, hau ere Andoainen sortua, **La Salle Berrozpe**, berrikuntza teknologikoaren eta gizartearen esparruan.

Lehen proposamenak, mendiak eta basoak zaintzearen aldekoak, gure planetako ingurumena hobetzen lagungarria izango den proiektu berritzailea eta berria planteatzeko ideia du ardatz oro har. Eta helburu hau du: gizarteari ulertaraztea, gizarte osoaren mesederako, natura ondo zaindu behar dugula, gure baso eta mendiak garbituz, leheneratuz eta zainduz, baita zuhaitz berriak landatuz ere. **Ikasbide Ikastolako "Kalakatsu5A"** taldeak egin du proposamena.

"**Traineru**" taldeak, **Orokieta Herri Eskolakoak**, egin du aukeratutako bigarren proposamena. Adinduei buruzkoa da, eta egoitzetan bizi diren nahiz eguneko zentroetara joaten diren adinduek jarduera eta poz ugari izatera bideratutako ekimen bat sortzera bultzatzen du, gure aitona-amonak asper ez daitezen eta zoriontsuagoak izan daitezen.

Hiri-tribuak ditu **Aita Larramendi Ikastolako "Dream young"** taldeak proposatutako ideia. "Tribu" horietako gazteak hurbiltzea proposatzen du, eta, horretarako, gazte horiek beren topaldiak (kedadak) egiteko eremuak sortzea, denda espezializatuak irekitzea eta, nahasmendurik sor ez dadin, "tribu" bakoitzaren ezaugarrien berri ematea planteatzen du.

**La Salle Berrozpeko "Kosmikoak"** taldeak plazaratutako ideia energia alternatiboak proposatzeko beste modu bat da, eta bizikletaren erabilera du ardatz: bizikleta-pedalkadek sortutako energia aparkatzeko zutoinei konektatutako kable batzuen bidez zentral batera bideratzeko modu bat sortzen saiatzen da, zentral horretatik energia hainbat erabileratarako bana dadin.

Ideia-jasaren ondoren, entrenamendu-etapa egin zen. Probetxugarri bezain hezigarria den etapa horretan, **Hasi eta Hazi** programarekin jarduten da, eta, hainbat unitate didaktikoren bitartez, proiektu bat sortzeko zer fase egin behar diren ikasten da. Hain zuzen ere, ekintzailtzarako eta ideiak sortu, planifikatu, ebaluatu eta koordinatzeko faseak ikusten dira.

Eta, azkenik, "Ikono" etapa iritsi zen; programan parte hartzen duten taldeek, ikus-entzunezkoen bitartez, beren proiektuak beharrezkoak eta egokiak direla defendatzeko unea da, ondoren denen artean ebaluatzeko. Ebaluazioa eginda, "Ikono" planetan bost talde irabazle izendatu zituen:

- "**Ausartak3C**" **Elgoibar Ikastolako**. Talde horrek 952,50 puntu lortu zituen Lehen Hezkuntza 1 kategorian (1., 2. eta 3. mailak), "Nagusiak alaitu" proposamenaren inguruan egindako lanagatik.

**Elgoibar Ikastolako** lana ikusi

Elkarrizketa **Elgoibar Ikastolako** Maria Karmen Azpiazuri



- "**Bostekoak**" **Elgoibar Ikastolako**. Elgoibar Ikastolako "Mendiak eta basoak zaindu ditzagun" proposamenaren inguruan lan eginda 1.069,93 puntu lortuz ituen Lehen Hezkuntza 2 kategorian (4., 5. eta 6. mailak).

**Elgoibar Ikastolako** lana ikusi

Elkarrizketa **Elgoibar Ikastolako** M. Kruz Intxaustiri



- "**Zimaik**" **Aita Larramendi Ikastolako**. "Pedalekin energia sortzeko bizikletak" proposamenaren inguruko lanagatik 1.003,49 puntu lortu zituen, DBH kategorian.

**Aita Larramendi Ikastolako** lana ikusi

Elkarrizketa **Aita Larramendi ikastolako** (DBH) Gorka Matuteri






- Gai beraren inguruan [Aita Larramendi](#) ikastolako beste talde batek, “**Potju**” izenekoak, 1.018,06 puntu lortu zituen Batxilergoa kategorian.

[Aita Larramendi Ikastolakoena lana ikusi](#)

[Elkarrizketa Aita Larramendi ikastolako \(Batxilergoa\) Gorka Matuteri](#)



- “**Molocotongo**” [La Salle Berrozpekoa](#). Talde horrek 858,27 puntu lortu zituen “Nagusiak alaitu” proposamenaren garapen-lanagatik.

[La Salle Berrozpekoena lana ikusi](#)

[Elkarrizketa La Salle Berrozpeko Josune Muruari](#)



“Ikono” planeta fasea amaituta, “Grapho” fasea hasten da. Maila horretan, proiektua planifikatu, garatu eta gauzatu egiten da, wikia erruz erabilita.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntza, Landa Garapen eta Turismo Departamentuak bultzatuta, Kosmodisea programaren helburua da Gipuzkoako ikasleen balio ekintzaile nagusiak (sormena, autokonfiantza, ekimena, tolerantzia, ahalegina egitea, analisirako gaitasuna, lidergoa, etab.) eta ekiteko gaitasunari lortutako trebetasunak (hizkuntza-arlokoak, zientzia-arlokoak, digitalak, etab.) garatzea. Horretarako, KOSMODISEA irakasle nahiz ikasleek informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erruz erabiltzean oinarritzen da modu estrategikoan. Tresna horiek (blogak; wikiak; audioa, irudia eta bideoa editatzeko programek; simulagailuak; webquest metodologiak; eta abarrek) KOSMODISEAREN kultura zabala eraikitzeke bitartekoa osatzen dute.

lazio edizioan 30 ikastetxetako 1.441 ikaslek eta 79 irakaslek hartu zuten parte KOSMODISEA programan, 166 taldeetan.

Orain arte, egin diren sei edizioetan, ia 8.500 ikaslek, 866 bat taldek eta 479 irakaslek baino gehiagok hartu dute parte KOSMODISEA ekimenean.

[Kosmodisearen webgunea:](#)

[www.kosmodisea.net](http://www.kosmodisea.net)

[info@kosmodisea.net](mailto:info@kosmodisea.net)

Tel.: 900 840 842